

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2021/2022 ikasturtea**

**EUSKARA GERNIKAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN  
AHOZKO KOMUNIKAZIOAN**

**Egilea:** Aitor Uncetabarrenechea del Río

**Zuzendaria:** Aitor Iglesias Chaves

**Leioan, 2022ko ekainaren 5ean**

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Marko teorikoa.....	4
1.1. Hizkuntzen eta euskararen bilakaeraren gakoak.....	4
1.2. Euskara batua: “estandarizazioa”.....	5
1.2.1. Sorrera.....	5
1.2.2. Euskara batua eta euskalkien elkarbizitza gizartean.....	7
1.3. Euskara eskolan.....	8
1.3.1. Historia.....	8
1.3.2. Euskara batua eta euskalkien elkarbizitza eskolan.....	9
1.4. Euskal idatzi ofizialak.....	10
2. Azterlanaren metodologia.....	12
2.1. Helburu nagusia.....	12
2.1.1. Azpi-helburuak: aldagaiak.....	12
2.2. Testuingurua.....	13
2.3. Hipotesiak.....	14
3.4. Ikerketaren nondik norakoak.....	14
3.4.1. Parte hartzaileak.....	14
3.4.2. Galdetegia.....	15
3.4.3. Informazioa jasotzeko eta analizatzeko tresnak.....	15
3. Emaizak.....	15
4. Ondorioak.....	22
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	25
6. Eranskinak.....	29
6.1. Baimen eskaera.....	29
6.2. Galdetegia.....	30
6.3. Erantzun posibleen zerrenda.....	31

## **EUSKARA GERNIKAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN AHOZKO KOMUNIKAZIOAN**

**Aitor Uncetabarrenechea del Río**

UPV/EHU

Ikerlan honek euskara batuaren eta euskalkien erabilera aztertzen ditu, betiere ahozko komunikazioan fokatuz. Modu berean, hezkuntza-sistemak aspektu honetan duen eragina behatzen da. Horretarako, ingurune euskalkidun batean murgiltzen da, konkretuki, Gernika-Lumon. Udalerriko bi eskoletako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek hartu dute parte honetan, itzulpenetan oinarritutako ahozko galdetegi bat betez. Helburua euskararen erabileraren azterketa egitea izan den arren, ikerketa are sakonagoa izateko, hiru aldagai zehaztu dira (ama-hizkuntza, eskola mota eta bizitokia), bakoitzari hipotesi bat egokituz. Aldagai horiekiko azterketa egin ostean, egiaztatu da euskara batuaren presentzia ez dela eragin handikoa oraindik inguru euskalkidunetan.

*Euskara estandarra, euskalkia, curriculum, Lehen Hezkuntza, ahozkotasuna*

Este estudio analiza el uso del euskera unificado y de los dialectos, enfocándolos siempre en la comunicación oral. Asimismo, se observa la influencia del sistema educativo en este aspecto. Para ello, se sumerge en un entorno vascófilo, concretamente en Gernika-Lumo. En esta ocasión han participado alumnos de 4º de primaria de dos escuelas del municipio, rellenando un cuestionario oral basado en traducciones. Aunque el objetivo ha sido hacer un análisis del uso del euskera, para que la investigación sea aún más exhaustiva, se han definido tres variables (lengua materna, tipo de escuela y lugar de residencia), ajustando una hipótesis a cada una de ellas. Tras el análisis de estas variables, se ha comprobado que la presencia del euskera unificado no es todavía muy influyente en los entornos vascófilos.

*Euskera estándar, dialecto, currículum, educación primaria, oralidad*

This study, focused on oral communication, analyses the use of unified Basque and dialects. It also looks into the influence of the education system in this aspect. For that purpose, it is immersed in a Basque-speaking environment, specifically in Gernika-Lumo. On this occasion, 4th year primary school pupils from two schools in the municipality took part in an oral questionnaire based on translations. Although the aim was to analyse the use of Basque, in order to do the research even more exhaustive, three variables were defined (mother tongue, type of school and place of residence), adjusting a hypothesis to each of them. After analysing these variables, it was found that the presence of unified Basque is not yet very influential in Basque-speaking environments.

*Standard Basque, dialect, curriculum, primary school, orality*

## Sarrera

Jakina denez, gizarte-talde bakoitzak ezaugarri komun batzuk ditu, gainerako gizarteetatik ezberdintzea eragiten dutenak. Horregatik, talde bakoitza bakarra dela esan daiteke. Bereizgarritasun puntu hori hamaika ezaugarri eragin dezakete, baina, ziur aski, garrantzitsuena hizkuntza da.

Hizkuntzak talde bateko kideak komunikatzea ahalbidetzen du eta, beraz, gizarte baten erro-errotiko esentzia da. Ondorioz, hizkuntza gizarte-talde baten ondare kulturala da beti. Gure kasuan, euskara dugu, seguruenik euskaldunon ondare kultural inportanteena.

Euskarak Euskal Herria osoan zabalduta dauden dialektoak (euskalkiak) biltzen ditu. Gainera, euskara batua ere dago, hizkuntza honen eredu estandarra dena. Hala ere, horrek ez du esan nahi euskalkien gainetik dagoenik, nahiz eta batzuetan hori irudi dezakeen. Horregatik, horien arteko elkarbizitza nolakoa den eta izan behar den ikertu da. Horretarako, euskalkiek eta euskara batuak historian izan duten ibilbidea azalduko da; batetik, gizartean, eta bestetik, hezkuntza esparruan izandako garapenean zentratuz. Modu berean, euskal idatzi ofizialen ikuspuntuak alderatuko dira.

Amaitzeko, alde teorikoak dioena betetzen den egiaztatzeko, eremu euskalkiduneko ikasleek ahozko komunikazioan nola diharduten aztertu da. Horregatik, Gernika-Lumora aritu gara. Honetan herriko bi eskoletako ikasleek hartu dute parte, bakoitzak itzulpenetan oinarritutako ahozko galdetegi bat betez. Modu honetan, hainbat aldagairen menpean, ikasleek euskara batuari edo bertako euskalkiari ekiten dioten jakin ahal izan da. Datuak bilduta eta interpretatuta, aldagai bakoitzari egokitutako hipotesia bete den ikusi da, esperotako eta espero gabeko aspektuak ondorioztatuz.

## 1. Marko teorikoa

### 1.1. Hizkuntzen eta euskararen bilakaeraren gakoak

Hizkuntza gizarte-talde batek sorturiko komunikatzeko era da, talde horren historia, kultura, etnia eta geografia moduko ezaugarrien menpean sortu dena (Pinzón, 2005). Izendatutako ezaugarriak direla eta, hizkuntza guztiak bakar eta bereziak dira; eta, beraz, hizkuntza bat gizarte-talde baten ondare kulturala da beti, haren erro-errotiko bereizgarrien isla baita.

Urteen joanarekin hizkuntza batzuk desagertu egin dira, ondare kultural immaterial honen galera ekarriz. Horren erakusgarri da azken bost mendeetan existitzen ziren hizkuntzen erdiak desagertu izana (Toledo, 2006). Hori dela eta, hizkuntza batek gaur egun bizirik jarraitzea pribilegio bat bezala kontsidera daiteke. Hala da euskararen kasua.

Bere jatorria ezezaguna izaten jarraitzen duen arren, Mitxelenak eginiko hipotesi batzuen arabera (Lakarra, 2006), uste da euskara protoeuskara deituriko aurreko hizkuntza batetik datorrela, K.a. oso mende gutxi lehenago sortu eta latinarekin harremanetan egon arte mintzatu zena (Núñez-Astrain, 2003). Aldi horren aurretik hitz egin zen euskarari pre-protoeuskara deritzogu. Hala ere, nahiz eta Lakarrak hainbat eta hainbat ikerketa egin honen inguruan, ezin izan du ezta zein garai historikotan erabili zen zehaztu (Núñez-Astrain, 2003).

Euskarak gizarte-aldaketen ondorioz sortuak izan diren eraso guztiei eutsi behar izan die, milaka eta milaka urtetan bizirautea lortuz. XX. mendean bizitako egoeran zentratuz, hamaika erasoaldi jaso zituen ia mende osoan zehar. Lehen oldar inportantea 1923koa izan zen, Primo de Riverak euskararen erabilera debekatu zuenean ekitaldi publikoetan. Urteak pasata, 1937an, are gehiago zapaldu zen euskara, konkretuki frankismoak guztiz galarazi zuenean. Euskaldunon hizkuntzaren zapalkuntza hurrengo hamarkadetan ere jarraitu zuen, espainola Estatuan guztiz inposatu arte. Azaldutakoan zentratuz, logikoki, euskarak garai latzak pasa behar izan zituen aurreko mendean. Hala ere, nahiz eta euskara ezin zitekeen erabili, presente jarraitu zuen euskaldunen komunikatzeko bide bezala (Osa, 2019); eta, jarrera horri esker, gaur egun bizirik jarraitzea lortu du.

Gaur eguneko euskara horrelakoa izatera heltzeko, pauso handiak eman behar izan dira ofizialtasunaren aldetik. Lehena, Euskaltzaindiaren eskutik etorri zen, euskara batua sortu zenean 1968an. Helburua euskaldun guztiak elkar ulertzeko modua erraztea zen, eta, horretarako, idazketarako arau batzuk zehaztu zituen (Mitxelena, 1968). Beste aurrerapauso handi bat euskararen ofizialtasuna lortzea izan zen, zehazki, Francoren heriotzaren ostean eta Espainiako 1978ko Konstituzioa ezarri zenean. Amaitzeko, urratsik handiena 1982an emandakoa izango litzateke, Euskararen Erabileraren Normalkuntza Legearen ezarpenarekin, euskara hezkuntza, hedabide eta administrazio esparruetara zabalduz (Toledo, 2006).

Hala eta guztiz ere, arestian azaldutako lorpenak EAerako baino ez ziren lortu, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko egoerak baztertuz. Horren erakusgarri da euskara hezkuntzan erabiltzearen adibidea, batez ere hezkuntza publikoan. Nafarroari dagokionez, 2016ra arte ez zegoen aukerarik egon ezta D, ezta B ereduetan ikasteko. Bestetik, Ipar Euskal Herrian ez dago inolako posibilitaterik euskara hezkuntza publikoan ikasteko. Trebiñuko konderrian Frantzian gertatzen den bera pasatzen da.

Gertaera guztiak aipatu ez diren arren, argi geratu da euskararekiko aldaketak une oro egon direla. Aldaketa nagusietako bat euskararen erabileraren gorakada da. Eustat-en (2017) ikerketa baten arabera, 1991. urtetik hizkuntza honen erabilera guztiz handitu da bai lan esparruan, baita familia eta lagunaren artean ere. Hala ere, euskara bultzatzeko beharra dago oraindik. Horregatik, *Euskaraldia* moduko kanpainak antolatu dira azkeneko urteetan, hizkuntzen erabileran eragiteko jarduera bezala (Amorraniz, 2019).

## **1.2. Euskara batua: “estandarizazioa”**

### **1.2.1. Sorrera**

Euskara batua sortzeko pauso nabarmenenak Euskaltzaindiaren sorrerarekin eman ziren, 1919an. Hala ere, esan daiteke prozesu hau ez zela zerotik hasi, izan ere hamaika egilek euskara batua sortzearen beharrianari buruz idatzi zuten aurretik (Salaburu, d.g.). XVII. mendean, adibidez, Sarako eskola sortu zen. Pedro de Axularrek eta beste hainbat euskal elizgizon izan ziren honen parte. Haien helburua erlijioa irakasteko euskara bateratua sortzea izan zen. Urte batzuk pasata, XVIII. mendean, Manuel de Larramendik euskalki denak egokiak zirela adierazi zuen eta, bide horretatik, guztiak erabili behar zirela. 1729an *El imposible vencido* publikatu zuen, non euskararen lehen gramatika arauak zehaztu zituen (de Larramendi, 1729). 1761ean, Agustín Kardaberazek

*Euskararen berri onak* obra argitaratu zuen. Honetan euskaraz idazteko, irakurtzeko eta hitz egiteko argibideak eman ziren (Kardaberaz, 1961). Hauek izan ziren euskara batua sortzearen lehenengo bultzatzaileetariko batzuk, literatura esparruan batez ere (Zuazo, 1988). Euskara batua sortzearen idea, beraz, ez da duela 100 urte sorturiko burutazioa, baizik eta aspalditik datorren kontua baino.

Esan bezala, nahiz eta urrats nabarmenenak 1919an hasi ziren, gerra sasoiaren eta hurrengo urteetan hizkuntza bateratzearen saiakera eten egin zen (Eusko Jaurlaritza, d.g.-a). XX. mendearen erdialdean, euskaltzale eta euskal idazle batzuek berriro ekin zioten euskara batua sortzearen ideari, izan ere, uste zuten hizkuntza estandarrik ez izatea, arriskutsua izan zitekeela euskararentzat (Garabide Elkartea, 2010). Hizkuntza bat estandarizatzean, existitzen diren hitzen kopurua murriztu behar da, eta euskararen kasuan, hainbeste euskalki egonda, nabarmena zen hau egiteko beharrezana. Hori eginda, euskara batua (“hizkuntza estandarizatua”), jatorrizko euskara baino laburragoa, koherenteagoa eta sinpleagoa dela esan daiteke; eta, beraz, aproposagoa da esparru publikoan erabiltzeko, bai irakaskuntzan, bai administrazioan, baita komunikabideetan ere (Zabaleta, 2019). Horregatik, aurretik aipatutako euskaltzaleek arau batzuk zehaztu zituzten, hizkuntzak, behintzat, oinarri finkoa izateko (Garabide Elkartea, 2010).

Prozesu hori aurrera eramateko, Baionako Euskal Idazkaritza sortu zen, 1963an. Jean-Louis Davant eta Txillardegik hartu zuten parte elkarte horretan, beste euskaltzale batzuen artean. Zortzi hilabetez lanean aritu ostean, 1964an, Baionako Biltzarraren Erabakiak aurkeztu ziren (Euskaltzaindia, d.g.-a). Hori pasata, Euskaltzaindiak lau euskaltzainez osatutako batzordea eratu zuen, Fernando Mendizabal, Santi Onaindia, Luis Villasante eta Koldo Mitxelenak osatzen zutena. Hauen xedea Baionako Biltzarrean adostutako proposamenak baloratzea eta balioestea zen (Euskaltzaindia, d.g.-c).

Arestian esandakora itzuliz, euskal idazleek adostutako arauak 1964ean zehaztu ziren, euskara batuaren aurreproiektu bezala. Ostera, 1968ko urriaren 3-5ean lortu zen aurreproiektuaren ofizialtasuna, Euskaltzaindiak Arantzazun bilera bat egin ondoren. Programa honen xedea ortografia, morfologia, deklinabideak eta neologismoak nola jorratu behar ziren zehaztea zen, betiere hizkuntza idatziari begira. Hau egiteko gipuzkera eta nafarrera hartu ziren abiapuntu modura. Hurrengo urteetan Euskaltzaindiak lehenengo proiektua osatzen eta luzatzen joan da, aditzaren eta gramatikari buruzko arauak argitaratuz (EJ, d.g.-a).

Laburtuz, Euskaltzaindiak euskarak arau idatziak izatearen beharra somatu zuen. Arau horien sortzea euskararen batasuna eta estandarizazioa lortzeko asmoz egin zen, hau da euskaldun guztiek erraz ulertzeko modukoa zen hizkuntza lortzeko. Euskara batuaren ofizialtasuna 1968an lortu zen eta garatuz joan da urteekin. Beraz, nahiz eta lan asko dagoen aurretik (EJ, d.g.-a), euskararen estandarizazioa 60ko hamarkadatik gaur egunera arte egin dela esan daiteke (Zabaleta, 2019).

### **1.2.2. Euskara batua eta euskalkien elkarbizitza gizartean**

Bere sorkuntzatik, euskara batuak euskalkiekin bizi behar izan du beti. Urteen joanarekin hauen arteko erlazioa aldatuz joan da, zailtasun eta gatazka handiko gaia izatetik, normaltasunez elkarrekin bizi ahal izatera (Maia eta Larrea, 2008).

Maia eta Larrearen (2008) ikerketan hiru garai zehazten dira, zeinetan euskara batuaren eta euskalkien harremana aldatuz doan. Lehen aldia gatazka biziko garaia da (1968-1982), euskara batua sortu zen urtean hasia. Etapa horrek, izenak dioen bezala, aldi gatazkatsu bat hartzen du bere baitan; izan ere, euskal gizartean zegoen banaketa azaltzen du. Bigarren etapak igarotze-aldia du izena (1983-1988). Urte horietan trantsizio bat dago hizkuntza trataeraren inguruko ideologian; hau da, gizarteak gatazka eta borroka alde batera uzten ditu, horrela lasaitasunera ailegatuz. Honekin batera, euskara batuak indarra hartzen du. Eta amaitzeko, 1988tik aurrera emandako etapa dago, bizikidetzaren tenorea deiturikoa. Garai horretan euskara batua eta euskalkiak elkarren osagarri izan behar diren pentsaera zabaltzen da, bientzako onuragarria den bizikidetzaz lortuz.

Aurreko hiru garaien azalpena emanda, Maiak eta Larreak (2008) eboluzio horren guztiaren ondorioak ateratzen dituzte. Alde batetik, euskara batuaren hazkuntzaren sasoian, euskalkien kontrako pentsaera zabaldu zela diote, jendeak uste baitzuen euskara desagertuko zela euskalkiak erabiltzen jarraituz gero. Bestetik, bazen beste ideologia bat euskara batuaren kontrakoa zena; izan ere, hizkuntza estandarra euskalkien hiltzaile bezala identifikatzen zuten.

Urteak pasata pentsaera horrek desagertzen joan dira; eta, horregatik, gaur egun, aditu guztiak daude euskalki baita euskara batuaren alde. Egia da, batzuetan, euskalkien erabilera kritikatzeko dela, betiere egokia ez den esparruetan erabiltzen bada, hala nola, administrazioan euskarazko idatzi bat egitean (Euskaltzaindia, 2004). Kasu horretan euskara batua erabili behar da nahitaez, horrela zehazten baita Euskaltzaindiak idatzitako arauetan.



Euskara batuari dagokionez, gaur egun, sarritan publikatzen dira Euskaltzaindiaren arauak betetzen ez dituen idatziak. Hala ere, jada ia euskaldun guztiek onartzen dute euskara batuaren beharra.

### **1.3. Euskara eskolan**

#### **1.3.1. Historia**

Euskara duela milaka urte sortu zela pentsatzen den arren, azkeneko bi milurtekoak dira soilik ezagunak gizakiontzat. Azken urte hauetan euskara beti agertu da beste hizkuntza batzuen menpean, hau da bigarren plano batean. Hala ere, sarritan egin dira saiakerak euskara beste hizkuntzen pareko mailan jartzeko. Ekimen garrantzitsuenak XX. mendean egin ziren, hala nola, ikastolen lehenengo hastapenak, non euskara lehen aldiz erabili zen hezkuntzan (Zuazo, 2018). Iniziatiba horrek inportantzia handikoak izan ziren bere sasoian; izan ere, beharrezkoak ziren euskara beste hizkuntzekin parekatzen hasteko eta, era berean, beharrezkoak izan dira euskara gaur egun den modukoa izatera ailegatzeko.

Aipatu den modura, euskaraz irakastearen lehen esperientzia, ikastolen eskutik etorri zen. Ikastola hitzak euskaraz irakasten duen zentroari egiten dio erreferentzia eta, beraz, euskal eskolari. Horregatik, ez da ikastetxe hitzaren sinonimoa, bigarren honek edozein eskolari erreparatzen baitio (Pagola, 2005).

Lehenengo ikastola Azkueren eskutik etorri zen. Saiakera honek ez zuen askorik iraun, 1896tik 1899ra arte hain zuzen ere. Honen helburua Lehen Hezkuntzan euskaraz irakastea zen; eta horregatik, irakasleek euskal curriculuma garatzen zuten. Mendearen hasieran, ikastola saiakera gehiago egin ziren. 1918an Oñatiko Eusko Ikaskuntzako lehen kongresua egin zen, eragin handikoa izan zena euskal irakaskuntzan eta curriculumean. Hurrengo urteak nahiko oparotsuak izan ziren eta 1932an, Errepublika garaian, Euzko Ikastola Batza sortu zen, ikastolen lehen elkarte. Beraz, nahiz eta 30 urte baino gehiago pasa Azkueren ikastola sortu zenetik, bazirudien ikastolak indartzen zihoazela, gutxinaka-gutxinaka balitz ere (Pérez-Urraza, 2019).

Ostera, Espainian frankismoa ezarri bezain pronto, ikastolak isilpean geratu ziren, debekaturik baitzegoen gaztelaniaz aparteko beste hizkuntza bat eskoletan erabiltzea (Pérez-Urraza, 2019). Hala ere, Elvira Cipitriaren eskutik, euskara irakasten jarraitu zen. Emakume honek ikastolek egindako lanarekin segitzeko beharra somatu zuen, aurreko

hamarkadetan egindako lan guztia alferrik ez galtzeko. Hori dela eta, Elvirak ikastolen mugimenduarekin jarraitu zuen klandestinitatean, ikastolak etxe partikularretan kokatuz (Basurto, 1989).

1960ko hamarkadan ikastolekiko irudia guztiz aldatu zen euskal-gizartean, ikastolak herri mugimenduaren bultzatzaile bihurtu arte. Zentro hauen helburua euskal sentimendua handitzea zen. Horretarako, euskara eta euskal kultura landu behar ziren nahitaez (Pérez-Urroa, 2019).

Hortik aurrera, euskara presente egon da beti ikastoletan. Berriz, 1982ra arte itxaron behar izan zen euskara hezkuntza-maila eta -mota guztietara zabaltzeko, konkretuki, Euskararen Erabileraren Normalkuntza Legearen ezarpenarekin (Toledo, 2006).

Aurreko guztia bilduz, euskal-hezkuntza duela 100 urte baino gehiago hasi zen arren, traba asko izan ditu aurrera egiteko. Horregatik, euskarak hezkuntzan izandako benetako papera, azkeneko 40 urteetan izandakoa baino ez da, etapa honetan irakatsi baita bakarrik modu jarraituan. Gaur egungo egoerari erreparatuz, EAEn bizi diren ikasle gehienek euskaraz ikasten dute (Eustat, 2021). Hala ere, nahiz eta positiboa izan datu hau, euskal-hezkuntzaren inguruko beste kezka bat ari da indarra hartzen: euskara batuaren eta euskalkien papera ikastetxeetan.

### **1.3.2. Euskara batua eta euskalkien elkarbizitza eskolan**

Euskara batua sortu zenean, Mitxelenak proposatu zuen erara, hizkuntza idatzian bakarrik erabiltzeko pentsatua izan zen. Ostera, egun, euskara estandarra ahozko nahiz idatzizko komunikazioan erabiltzen da, esparru formal zein informaletan. Egoera hau euskaldun-berrien jarreretan behatzen da argitasunez, izan ere, euskara batua baino ez dutenez menperatzen, hau erabiltzen dute komunikazio esparru guztietan (Aurrekoetxea, Unamuno eta Ensunza, 2020). Horren ondorioz, euskara estandarrak euskalkien presentzia mugatu du, hauek duten inportantzia txikituz. Hala eta guztiz ere, azken urteetan, euskalkiek hezkuntzan izan behar duten paperari buruzko eztabaida sortu da (Elordui eta Maia, 2002).

Bi ikuspuntu dira nagusi gai honen inguruan: bakarzalea eta «dialektozalea» (Maia eta Larrea, 2008). Batetik, joera bakarzaleari erreparatuz, liburuetako hizkuntza-eredua defendatzen du, beraz, euskara batua (estandarra). Euskara-mota hori irakatsi

behar dela dio, ikasleek etxean edo herrian bereganatu duten hizkuntza baztertuz. Jarrera honek euskalkien desagertzea eragiten du bete-betean.

Bestetik, joera «dialektozalea» dugu, zeinek defendatzen duen hizkuntza bat irakastea posible diren erregistro gehienak irakatsi behar direla, horrela hizkuntza aberastasuna lortuz eta esparru ugarian diharduteko gaitasuna bereganatuz. Bestalde, ikasleak duen hizkuntza-eredua hartzen da abiapuntu modura, hortik hasita beste ereduak irakasteko. Beraz, guztiz baliagarria da ikasleak eskolatik kanpo ikasitako hizkera (Maia eta Larrea, 2008).

Aurreko horretan fokatuz, zonalde bateko dialektoak ez dira inoiz baztertu behar. Hori dela eta, herri bateko euskalkia ez da inoiz bigarren maila baten jarria izango, eta irakasleak kontuan izango du beti hizkuntza irakasteko orduan (Maia, 2008).

Hau guztia esanda, argi ikusten da zein ezberdinak diren joera bakarzalea eta «dialektozalea». Ostera, ez da inongo adostasunik lortu euskara irakastearen moduari buruz. Horregatik, hizkuntzaren didaktika izan behar da aurrea hartzen duena, benetan zehazteko nola jardun behar den euskalkiekin eta euskara batuarekin hezkuntzan (Elordui eta Maia, 2002).

#### **1.4. Euskal idatzi ofizialak**

Euskal hezkuntza sistemaren helburu nagusietako bat ikasleak euskaraz eta espainolez irakastea da. Horrela, ikasleek bi hizkuntzetan mintzatzeko zein idazteko trebetasuna lortuko dute (Bilbao eta Pérez-Urraza, 2008). Hala ere, nahiz eta garbi utzi euskara eta gaztelania landu behar direla, sarritan hutsunea egon da euskararen alderdian, izan ere ez da inolako zehaztapenik egin euskalki eta euskara batuaren erabilera hezkuntzan. Egoera hau argitzea erakunde ofizialei dagokienez, orain haien ikuspuntuak bildu eta azalduko dira.

Hasteko, Euskaltzaindiaren paperari erreparatuz, behin baino gehiagotan ez du argi utzi zein izan behar den euskalkien eta hezkuntzaren arteko lotura. 1979an dialektoak euskara batuaren osagarri izan behar zirela adierazi zuen, beraz bien erabilera bultzatzea zen jomuga. Ostera, hau utopia bat izatera baino ez zen heldu, ez baitzen inolako loturarik ezartzen bien artean. Urteak pasata, 2004ean, Euskaltzaindiak euskalkiak baloratzeko eta haien garrantzia handitzeko aurrerapauso bat eman zuen, eta, horrekin batera, hauek hezkuntzan erabiltzeko aholkuak eman zituen (Vázquez-Villa, 2017).

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren ikuspuntua dago, Heziberri 2020 planean islatzen dena, Hezkuntza Sailak sortutakoan. Honen helburua EAeko hezkuntza sistema hobetzea da eta, beraz, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria plan honetatik at uzten ditu. Heziberri 2020k euskal hezkuntzaren nondik norako guztiak biltzen ditu, haren barne hartuz hezkuntzaren euskal lege dokumentuak, hala nola, 236/2015 dekretuak zehaztutako Hezkuntza curriculum. Hau analizatzean berehala somatzen da hizkuntzak betetzen duen papera, izan ere, hizkuntza erabiltzea nahitaezkoa da gainerako kompetentzia zein arloak garatzeko. Hori dela eta, gainerako arloen gainetik agertzen da momentu oro (Azurmendi, 2003).

Heziberri 2020k hizkuntzen inguruan erakusten duen jarrerari erreparatuz, elebitasuna lortu nahi duela dio. Hala ere, euskararen erabilera lehenetsiko da espainolaren gainetik, horrela gaur egun dagoen desoreka txikitzeko. Bestalde, zentro bakoitzak bere Hizkuntza eta Curriculum Proiektuak izango ditu, bere testuinguruari egokituta egongo direnak (Eusko Jaurlaritza, d.g.-b). Honekin herriko edota eskualdeko ezaugarriak ezarri dira eskola eta ikastoletan, eta beraz, posiblea izan da euskalkien papera zehaztea zentroetako idatzi ofizialetan (Vázquez-Villa, 2017).

Hezkuntza curriculumarekin jarraituz (Eusko Jaurlaritza, 2015), dialektoak eta euskara estandarra elkarren osagarri agertzen dira. Lehenengo zikloan, berez, inguruko euskalkiak identifikatzeko gai izan behar dira, hau da haien biografia linguistikoaz ohartzeko gai. Modu berean, euskalki hauek balioesteko jarrera izatea eskatzen da. Bigarrenen zikloan, ordea, ingurune hurbileko euskalkiak identifikatzeko, aztertze eta elkarren artetik ezberdintzeko gai izan behar dira, bai idatzizko testuen bidez, bai ahozkoen bidez. Horrez gain, hizkuntza estandarra euskalkietatik bereizteko gaitasuna lortu behar dute (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Aurreko guztia bilduz, badirudi Eusko Jaurlaritzak Euskaltzaindiak baino esku-hartze handiagoa izan duela euskararen trataerari buruz hezkuntzan. Eusko Jaurlaritzak dialekto eta euskara estandarren arteko dendua mantendu nahi izan duen arren, ez ditu argibide zehatzak eman hauen erabilpenari buruzkoak; hots, ikastetxeen eskuetan uzten du erabakia (Maia eta Larrea, 2008). Hala ere, horrek ez du esan nahi ikastetxeek nahi dutena egin dezaketela, izan ere curriculumean euskararen trataeraren inguruko jarraibideak daude, hala nola, ikasleen aurre ezagutzak gogoan izan behar direla, kasu askotan (ingurune euskaldunetan batez ere) euskalkia hauen artean egonda. Are gehiago,

hurbileko hizkuntzatik hasi behar da, urrunekoa garatzeko; beraz, ikasleek dialektoren bat ezagutzen baldin badute, horren oinarrian ikasiko dute euskara batua.

Hori dela eta, euskal idatziek diotena kontuan hartuta, zonalde euskaldunetako ikastetxeetan haien euskalkiak landu beharko lirateke, beranduago euskara estandarra irakatsiz. Ostera, dialektorik gabeko tokietan euskara batua irakastea izango litzateke aukerarik aproposena (Maia eta Larrea, 2008).

## **2. Azterlanaren metodologia**

Burututako ikerketan euskara estandarrak eta euskalkiek ahozko komunikazioan duten papera alderatu da, fokoa Lehen Hezkuntzako ikasleen berba egiteko eran jarritz. Hori dela eta, Busturialdean dauden euskara aldaeren erabilera aztertzeke asmoz, zonalde honetako 101 ikaslek hartu dute parte prestatutako galdetegian.

Ondorengo orrietan azterlan honen nondik norako guztiak azalduko dira. Modu berean, emaitzak eta lortutako ondorioak ere argituko dira. Hala ere, zehaztu behar da ez direla galde-sorta honen ondorioak orokortzea komeni, ingurune zehatz baten murgildu baikara ikerketa egiteko eta, bestalde, adin konkretu bateko ikasleak bakarrik elkarrizketatu direlako.

### **2.1. Helburu nagusia**

Arestian esan bezala, ikerketa Busturialdean burutu da, Gernika-Lumoko udalerrian hain zuzen ere. Hori esanda, helburu nagusia ondorengo hau izango litzateke: Gernika-Lumoko ikasleek ahozkotasunean euskara estandarri edo bertako euskalkiari erreparatzen dioten jakitea. Gehiago zehaztekotan, esan behar da Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen hizkuntza-erabileran oinarriturik dagoela.

Amaitzeko, helburu orokorraz gain, beste azpi-helburu batzuk ere daude. Azpi-helburuak hurrengo puntuan aipatuko diren aldagaiak dira.

#### **2.1.1. Azpi-helburuak: aldagaiak**

Hona hemen helburu nagusia bete ahal izateko, aurretik ikertu beharreko aldagaiak:

- A. Ama-hizkuntza. Elkarrizketatuen ama-hizkuntza euskara edo erdara izatearen arabera, euskaraz hitz egiteko modua aztertu.
- B. Eskola mota: publikoa edo itunpekoa. Ikastetxearen arabera, euskaraz berba

egiteko era aztertu.

- C. Bizitokia, herria. Ikasleak bizi diren udalerraren arabera, euskaraz mintzatzeko modua aztertu. Alderaketa Gernika-Lumon bizi direnen eta gainontzeko herrietan bizi direnen artean egingo da.

## 2.2. Testuingurua

Eustat-eko (2018a) datu estatistikoek erakusten den erara, euskara presente dago Gernika-Lumoko herritarren artean. Horren erakusgarri da 2016an herritarren ia % 70 euskaldun alfabetatuak izatea eta ehunekoak igotzen jarraitzea urtez urte. Beraz, honek esan nahi du gero eta gernikar gehiago daudela euskara ulertzen dutenak eta irakurtzeko, idazteko eta hitz egiteko gai direnak. Modu berean, nabarmentzekoa da, nahiz eta euskaldun alfabetatuen ehunekoak gora egin duen, erdaldunen kopurua ere igo dela azken 20 urteetan, izan ere, gero eta etorkin gehiago heltzen ari dira urtez urte udalerrira (Eustat, 2021).

Burututako ikerketa ahalik eta sakonena izateko, Gernika-Lumoko bi zentrotan egin da galdetegia. Haien testuinguruari erreparatuz, alde nabaria dago hizkuntzaren erabileraren esparruan (Soziolinguista Klusterra, 2017). Batetik, itunpekoa den ikastolan eta haren inguruko zonaldeetan, euskara da presenteen dagoen hizkuntza (% 74,2). Gainera, aurreko urteak behaturik, igoera zuzen eta azkarra ikusten da urtez urte eta, beraz, ondoriozta dezakegu gaur egun honen ehunekoak are handiagoa dela. Eskola publikoan, ostera, ehunekoak ez da batere aldatu eta, horregatik, honek horrela jarraitzen duela pentsa dezakegu. Hala ere, euskararen erabilera nahiko altua da (% 69). Gaztelaniaren erabileran fokatuz, itunpeko ikastolaren eta eskola publikoaren datuak nahiko parekoak dira, % 25,1 eta % 25,8 hain zuzen ere. Alde nabariena euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzetan dago, izan ere itunpekoan ez dago apenas hauen presentziarik (% 0,7). Publikoan, ordea, beste hizkuntzek % 5,1 hartzen dute.

Aurretik esan den modura, urteak pasa ahala, atzerritarren kopurua gora doa Gernika-Lumon. Horregatik, onartu behar da hizkuntzen erabileraren ehunekoak aldatu izana, izan ere, aurreko datuak 2016koak dira. Aldaketa nagusien artean, eskola publikoan eta haren inguruko zonaldeetan euskaren erabilera jaistea izango litzateke. Arestiko datuek erakusten duten bezala, atzerritarrek eskola publikora joateko joera izan dute azken urteetan eta, beraz, honek horrela jarraitzen baldin badu, erdararen erabilera

handitu egingo litzateke eta euskararena jaitsi. Hori esanda, nire uste apalean, itunpeko eta eskola publikoaren arteko aldea are zabalagoa izan behar du gaur egun.

### **2.3. Hipotesiak**

Helburuak eta azpi-helburuak aipatuta eta Gernika-Lumoko eta zentroetako hizkuntza-testuingurua azalduta, hauek dira proposatutako hipotesiak:

- I. Ama-hizkuntza euskara duten ikasleek bertako euskalkiko lexikoa erabiltzera joko dute. Besteek, ordea, euskara batua erabiliko dute maizago.
- II. Gehiengoaren ama-hizkuntza euskara izatearen arrazoi, itunpeko zentroan ikasten dutenek euskalkia gehiago erabiliko dute eskola publikoko ikasleak baino.
- III. Gernika-Lumotik at bizi direnak euskalkia erabiltzera joko dute. Gernikarrak, aldiz, ez hainbeste. Izan ere, Gernika-Lumo inguruko herrietan ez dira atzerritarrak apenas bizi eta, gainera, euskara da gehiengoaren ama-hizkuntza (Eustat, 2018b).

### **3.4. Ikerketaren nondik norakoak**

#### **3.4.1. Parte hartzaileak**

Azterlan hau benetan probetxugarria izateko, zonalde euskalkidun batean murgiltzea komeni izan da. Hori dela eta, Busturialdeko egoera ikertu nahi izan denez, fokoa Gernika-Lumon jartzea erabaki da. Horrela, Gernikako-Lumoko eta inguruko herri txikietakiko ikasleek euskara estandarrarekiko eta euskalkiekiko zein jarrera duten jakin ahal izan da.

Ikerketa udalerriko bi zentrotan egin da. Kasu honetan, bai eskola publikoan, bai itunpekoan D eredia erabiltzen dute. Azterlanean eskola bietako baimena izan duten Lehen Hezkuntza 4. mailako ikasleek parte hartu dute. Guztira 101 ikaslek. Ostera, azpimarratzekoa da, berez, ikasle gehiagoren baimenak jaso direla, baina haien hizkuntza-maila dela eta, ezin izan dutela galdetegia laguntza barik bete. Horren ondorioz, baimena izan duten 10 bat ikaslek ezin izan dute parte hartu ikerlan honetan. Guraso edo tutore legalen onspena izateko, baimen eskaera bat bidali da etxera, baimendun ikasleek sinatuta ekarri behar izan dutena bueltan (I. eranskina).

### 3.4.2. Galdetegia

Arestian esan bezala, parte hartzaileek itzulpenetan oinarritutako ahozko galdetegi bat bete dute (II. eranskina), aurretiaz zehaztutako 50 itemez osatutakoa. Hasiera batetik, euskal lexikoa ikertu nahi izan da eta, beraz, hizkuntza osatzen duten hitzak bildu dira: izenak, aditzak eta adjektiboak. Hala ere, hainbat atzizki, aldaketa fonologiko eta aldaketa lexikalizaturen azterketa ere egin da. Hitzen aukeraketarako Hiztegi Batua (Euskaltzaindia, 2016) eta Euskararen Herri Hizkeren Atlas (Euskaltzaindia, d.g.-b) erabili dira.

Galdetegia egoki burutzeko, hainbat hitz, berez zailtasun handienekoak direnak, testuinguruan kokatzea erabaki dira. Horretarako, esaldiak sortu dira berba horiekin, ikasleek hobeto uler dezaten galdetutakoa.

### 3.4.3. Informazioa jasotzeko eta analizatzeko tresnak

Eskola bietan, bai itunpekoan, bai publikoan, prozedura bera jarraitu da, non ikasleak banaka elkarrizketatuak izan diren galdetegia betetzeko. Esan bezala, gaztelaniazko hitzak edota esaldiak itzuli dituzte, aurretik adostutako 50 itemen erabilera aztertzeko. Galdetegia burutu ahala, haien erantzunak Excel batean bildu dira, euskara batua edo euskalkia erabili duten sailkatuz. Modu berean, aldagaien arabera azterlana egiteko, ikasleen ama-hizkuntza, bizitokia eta eskola apuntatu dira.

Sailkapen prozesua errazteko, aurretik esperotako euskarazko erantzunak zeintzuk izan litezkeen apuntatu dira, euskara batu direnak edo euskalkiaren parte direnak bereiztuz (III. eranskina). Bestalde, azpimarratzekoa da ikasle batzuek beste toki batzuetako berbak erabili dituztela, ikerketan zehar espero ez ziren hitzak agertuz, adibidez: txirrist egin, hank(a)utsik eta ondi(ño)karren. Ondorioz, haien jatorria zein den ikertu behar izan da erantzun taula egoki bete ahal izateko. Espero zen bezala, erantzun gabeko galderak ere egon dira (nuluak).

Ikerlan hau guztiz zuzena eta fidagarria izan dadin, ikasle bakoitzarekin egindako elkarrizketa grabatua izan da. Modu berean, grabaketak lagungarriak izan dira ikasleek emandako erantzunak eta sailkapen taula bat datozen egiaztatzeko.

## 3. Emaitzak

Excel-ean bildutako datu guztiak aldagaien arabera sailkatu dira. Hori eginda, lortutako erantzun baliiodunak ehunekoetara pasa dira. Hau egiteko, ez dira kontuan izan



elkarrizketatuak erantzun gabeko itemak (nuluak), hutsik geratutako laukitxoak baitira. Beraz, ehunekoa lortzean, bakarrik baloratu izan dira euskara batuari edo euskalkiari dagozkien erantzunak. Taularen amaieran baliozko erantzunen batz besteko ehunekoak agertuko dira.

Hona hemen aztertutako aldagaiak eta haien laburdurak:

A. Ama-hizkuntza: euskara soilik (AHEus.) / erdara (AHEr.)

B. Eskola mota: publikoa (EP) / itunpekoa (IE)

C. Bizitokia: Gernika (G) / Gernikatik kanpo (GK)

Hurrengo tauletan aldagaien inguruko erantzunak emango dira. Gainera, aurretik aipatutako hipotesiak egiaztatzen diren aztertuko da.

**A. Ama-hizkuntza: euskara soilik (AHEus.) / erdara (AHEr.)**

Atal honetan bi talde egin dira: ama-hizkuntza soilik euskara (AHEus.) dutenak eta ama-hizkuntza erdara (AHEr.) dutenak. Bigarren talde horretan posible da ikasleren baten ama-hizkuntza euskara ere izatea, etxean txikitatik aritu baita bai euskaraz, bai erdaraz.

			AHEus.		AHEr.	
Martitzen	vs	Astearte	% 48	% 52	% 55	% 45
Eguen	vs	Ostegun	% 21	% 79	% 33	% 67
Aitita	vs	Aitona	% 100	% 0	% 93	% 7
Abade	vs	Apaiz	% 89	% 11	% 72	% 28
Aldats	vs	Aldapa	% 79	% 21	% 57	% 43
Izeko	vs	Izeba	% 95	% 5	% 100	% 0
Aizta	vs	Ahizpa	% 93	% 7	% 70	% 30
Min	vs	Mihi/mingain	% 95	% 5	% 78	% 22
Hagin	vs	Hortz	% 95	% 5	% 95	% 5
Lepo	vs	Bizkar	% 84	% 16	% 68	% 32
Marapilo	vs	Korapilo	% 57	% 43	% 50	% 50
Kordel	vs	Lokarri/soka/korda	% 53	% 47	% 72	% 28
Armosu	vs	Gosari	% 48	% 52	% 50	% 50
Malluki	vs	Marrubi	% 62	% 38	% 43	% 57
Asukera	vs	Azukre	% 80	% 20	% 55	% 45
Gaba	vs	Gaua	% 92	% 8	% 55	% 45

Aramu	vs	Armiarma	% 77	% 23	% 63	% 37
Bekoki	vs	Kopeta	% 89	% 11	% 94	% 6
Tripalak	vs	Tripako mina	% 0	% 100	% 3	% 97
Sama	vs	Lepo	% 95	% 5	% 89	% 11
Atzamar	vs	Hatz	% 100	% 0	% 100	% 0
Eskuma/eskoia	vs	Eskuina	% 98	% 2	% 97	% 3
-du [mugidu]	vs	-tu [mugitu]	% 89	% 11	% 50	% 50
-(e)gaz [nigaz]	vs	-(r)ekin [nirekin]	% 90	% 10	% 67	% 33
-gi [ebagi]	vs	-ki [ebaki]	% 93	% 7	% 83	% 17
-do [ondo]	vs	-gi [ongi]	% 100	% 0	% 100	% 0
-e [ure]	vs	-a [ura]	% 90	% 10	% 63	% 37
-ie [atie]	vs	-ea [atea]	% 82	% 18	% 37	% 63
Ixetu/biztu	vs	Piztu	% 67	% 33	% 43	% 57
Amatatu	vs	Itzali	% 89	% 11	% 65	% 35
Ostu	vs	Lapurtu	% 89	% 11	% 53	% 47
Jausi	vs	Erori	% 98	% 2	% 90	% 10
Eroan	vs	Eraman	% 92	% 8	% 80	% 20
Laban egin/txirrist egin	vs	Irrist egin	% 97	% 3	% 94	% 6
Ortozik/hank(a)utsik	vs	Oinutsik	% 83	% 17	% 80	% 20
Uger egin	vs	Igeri egin	% 74	% 26	% 54	% 46
Holan	vs	Horrela	% 98	% 2	% 80	% 20
Jagon	vs	Zaindu	% 2	% 98	% 3	% 97
Ondino/ondi(ño)karren	vs	Oraindik	% 92	% 8	% 80	% 20
Olgau	vs	Jolastu	% 0	% 100	% 0	% 100
Sakatu	vs	Bultzatu	% 97	% 3	% 79	% 21
Berba egin	vs	Hitz egin	% 85	% 15	% 73	% 27
Zutunik	vs	Zutik	% 89	% 11	% 83	% 17
Txarri	vs	Txerri	% 43	% 57	% 20	% 80
Ago	vs	Aho	% 69	% 31	% 35	% 65
Lora	vs	Lore	% 62	% 38	% 28	% 72
Garri	vs	Gerri	% 5	% 95	% 14	% 86
Eperdi	vs	Ipurdi	% 23	% 77	% 8	% 92
Atzazkolak/atzazkalak	vs	Atzazal	% 90	% 10	% 95	% 5
Motz	vs	Itsusi	% 92	% 8	% 70	% 30
<b>Batez besteko ehunekoa</b>			<b>% 75</b>	<b>% 25</b>	<b>% 62</b>	<b>% 38</b>

> % 85	28/50	4/50	11/50	5/50
--------	-------	------	-------	------

1. taula. Euskararen erabilera ama-hizkuntzan oinarrituta.

Taula behaturik, bete-betean ikus daiteke nolako aldea dagoen AHEus. eta AHEr.-en artean euskalkiaren erabilerari dagokionez. Ama-hizkuntza euskara soilik dutenen artean, erantzun baliiodunen % 75 euskalkian eman dira. AHEr.-ek, ostera, erantzun baliiodunen % 62. Nahiz eta taula honetan islatzen ez den, alde handia ikusi da baita ere erantzun gabeko itemetan (nuluak), izan ere AHEr.-ek ez dute jakin nola erantzun galdetutako itemen % 3a. AHEus.-ek, berriz, % 99 baino gehiago erantzun dute.

Datu interesgarriari erreparatuz, nabarmendu behar da AHEr.-ek ehuneko handiago batean esaten dituztela asteko egunak bertako euskalkiarekin. Aipagarria den beste datu bat “armusu” eta “gosari” hitzen erabilera da. Aldea nabaria ez den arren, AHEus.-koek gutxiago erabiltzen dute “armusu” hitza beste taldekoek baino. Item aipagarriekin amaitzeko, AHEr.-ek ehuneko handiago batean erabiltzen dute aldaketa lexikalizatua den “garri” hitza ama-hizkuntza euskara soilik dutenak baino.

**B. Eskola mota: publikoa (EP) / itunpekoa (IE)**

			IE		EP	
Martitzen	vs	Astearte	% 18	% 82	% 75	% 25
Eguen	vs	Ostegun	% 2	% 98	% 44	% 56
Aitita	vs	Aitona	% 100	% 0	% 95	% 5
Abade	vs	Apaiz	% 83	% 17	% 84	% 16
Aldats	vs	Aldapa	% 90	% 10	% 55	% 45
Izeko	vs	Izeba	% 98	% 2	% 96	% 4
Aizta	vs	Ahizpa	% 95	% 5	% 75	% 25
Min	vs	Mihi/mingain	% 98	% 2	% 82	% 18
Hagin	vs	Hortz	% 98	% 2	% 93	% 7
Lepo	vs	Bizkar	% 82	% 18	% 74	% 16
Marapilo	vs	Korapilo	% 53	% 47	% 55	% 45
Kordel	vs	Lokarri/soka/korda	% 60	% 40	% 60	% 40
Armosu	vs	Gosari	% 61	% 39	% 36	% 64
Malluki	vs	Marrubi	% 53	% 47	% 56	% 44
Asukera	vs	Azukre	% 86	% 14	% 58	% 42
Gaba	vs	Gaua	% 77	% 23	% 77	% 23
Aramu	vs	Armiarma	% 86	% 14	% 60	% 40
Bekoki	vs	Kopeta	% 94	% 6	% 87	% 13

Tripalak	vs	Tripako mina	% 0	% 100	% 2	% 98
Sama	vs	Lepo	% 95	% 5	% 91	% 9
Atzamar	vs	Hatz	% 100	% 0	% 100	% 0
Eskuma/eskoia	vs	Eskuina	% 98	% 2	% 98	% 2
-du [mugidu]	vs	-tu [mugitu]	% 89	% 11	% 63	% 37
-(e)gaz [nigaz]	vs	-(r)ekin [nirekin]	% 93	% 7	% 72	% 28
-gi [ebagi]	vs	-ki [ebaki]	% 89	% 11	% 89	% 11
-do [ondo]	vs	-gi [ongi]	% 100	% 0	% 100	% 0
-e [ure]	vs	-a [ura]	% 93	% 7	% 68	% 32
-ie [atie]	vs	-ea [atea]	% 80	% 20	% 53	% 47
Ixetu/biztu	vs	Piztu	% 68	% 32	% 49	% 51
Amatatu	vs	Itzali	% 95	% 5	% 67	% 33
Ostu	vs	Lapurtu	% 89	% 11	% 63	% 37
Jausi	vs	Erori	% 98	% 2	% 93	% 7
Eroan	vs	Eraman	% 93	% 7	% 82	% 18
Laban egin/txirrist egin	vs	Irrist egin	% 98	% 2	% 94	% 6
Ortozik/hank(a)utsik	vs	Oinutsik	% 88	% 12	% 77	% 23
Uger egin	vs	Igeri egin	% 88	% 12	% 47	% 53
Holan	vs	Horrela	% 88	% 12	% 86	% 14
Jagon	vs	Zaindu	% 0	% 100	% 4	% 96
Ondino/ondi(ño)karren	vs	Oraindik	% 93	% 7	% 82	% 18
Olgau	vs	Jolastu	% 0	% 100	% 0	% 100
Sakatu	vs	Bultzatu	% 93	% 7	% 81	% 19
Berba egin	vs	Hitz egin	% 90	% 10	% 72	% 28
Zutunik	vs	Zutik	% 95	% 5	% 78	% 22
Txarri	vs	Txerri	% 48	% 52	% 23	% 77
Ago	vs	Aho	% 73	% 27	% 42	% 58
Lora	vs	Lore	% 70	% 30	% 32	% 68
Garri	vs	Gerri	% 16	% 84	% 2	% 98
Eperdi	vs	Ipurdi	% 21	% 79	% 13	% 87
Atzazkolak/atzazkalak	vs	Atzazal	% 90	% 10	% 93	% 7
Motz	vs	Itsusi	% 86	% 14	% 82	% 18
<b>Batez besteko ehunekoa</b>			% 75	% 25	% 65	% 35
<b>&gt; % 85</b>			31/50		13/50	

2. taula. Euskararen erabilera eskola motan oinarrituta.

Aldagai honetan ere, argi eta garbi ikusi da nolako aldea dagoen talde batetik bestera. Itunpeko eskolako baliozko erantzunen % 75 euskalkian eman dira, publikoko ikasleek baino % 10 gehiago. Erantzun nuluei dagokienez, itemen % 2 izan da bi taldeetan. Beraz, aspektu honetan guztiz parekatuta daudela ikusi da.

Nabarmentzekoak diren datuetan fokatuz, aurreko atalean aipatutako asteko egunak aztertu behar dira. IE-koek ez dituzte apenas erabiltzen bizkaierazko “martitzen eta eguen” berbak “astearte eta ostegun” esateko. Horren erakusgarri da “martitzena” soilik % 18k esatea eta “eguen” % 2k. Ostera, EP-ko gehiengoek euskalkia erabiltzeari ekiten diote.

Horrez gain, harrigarria izan da hainbesteko aldea egotea atzizkien eta aldaketa lexikalizatuen aspektuan eskola bietako ikasleen artean. Atzizkiei erreparatuz, orokorrean IE-koek % 20 gehiago erabiltzen dituzte euskalkiko atzizkiak EP-koek baino. Aldaketa lexikalizatuetan (txarri, ago, lora, garri eta eperdi) are berdina gertatzen da.

**C. Bizitokia: Gernika (G) / Gernikatik kanpo (GK)**

Honen azterketa egin aurretik, garrantzitsua da esatea nahiz eta 13 elkarrizketatu izan diren bakarrik Gernikatik kanpo bizi direnak, horietako bat izan dela 101 ikasleetatik euskara batua gehien erabili duen ikaslea. Hori ez da batere ohikoa eta, horregatik, datuak pixka bat kondizionatu dituela esan daiteke. Azterlan honen populazioa handiagoa izango balitz, eta modu horretan Gernikatik at bizi diren ikasle gehiagok hartu izango balute parte esperientzia honetan, askoz ere hobeto ulertuko litzateke haien errealitatea.

			G		GK	
Martitzen	vs	Astearte	% 53	% 47	% 31	% 69
Eguen	vs	Ostegun	% 27	% 73	% 15	% 85
Aitita	vs	Aitona	% 96	% 4	% 100	% 0
Abade	vs	Apaiz	% 85	% 15	% 71	% 29
Aldats	vs	Aldapa	% 67	% 33	% 92	% 8
Izeko	vs	Izeba	% 96	% 4	% 100	% 0
Aizta	vs	Ahizpa	% 83	% 17	% 92	% 8
Min	vs	Mihi/mingain	% 86	% 14	% 100	% 0
Hagin	vs	Hortz	% 94	% 6	% 100	% 0
Lepo	vs	Bizkar	% 77	% 23	% 77	% 23
Marapilo	vs	Korapilo	% 53	% 47	% 62	% 38
Kordel	vs	Lokarri/soka/korda	% 60	% 40	% 62	% 38

Armosu	vs	Gosari	% 44	% 56	% 69	% 31
Malluki	vs	Marrubi	% 53	% 47	% 62	% 38
Asukera	vs	Azukre	% 67	% 33	% 92	% 8
Gaba	vs	Gaua	% 77	% 23	% 77	% 23
Aramu	vs	Armiarma	% 69	% 31	% 85	% 15
Bekoki	vs	Kopeta	% 91	% 9	% 91	% 9
Tripalak	vs	Tripako mina	% 1	% 99	% 0	% 100
Sama	vs	Lepo	% 91	% 9	% 92	% 8
Atzamar	vs	Hatz	% 100	% 0	% 100	% 0
Eskuma/eskoia	vs	Eskuina	% 99	% 1	% 92	% 8
-du [mugidu]	vs	-tu [mugitu]	% 73	% 27	% 77	% 23
-(e)gaz [nigaz]	vs	-(r)ekin [nirekin]	% 80	% 20	% 92	% 8
-gi [ebagi]	vs	-ki [ebaki]	% 90	% 10	% 85	% 15
-do [ondo]	vs	-gi [ongi]	% 100	% 0	% 100	% 0
-e [ure]	vs	-a [ura]	% 77	% 23	% 92	% 8
-ie [atie]	vs	-ea [atea]	% 63	% 37	% 77	% 23
Ixetu/biztu	vs	Piztu	% 53	% 47	% 85	% 15
Amatatu	vs	Itzali	% 77	% 23	% 92	% 8
Ostu	vs	Lapurtu	% 73	% 27	% 85	% 8
Jausi	vs	Ereri	% 95	% 5	% 92	% 8
Eroan	vs	Eraman	% 85	% 15	% 100	% 0
Laban egin/txirrist egin	vs	Irrist egin	% 95	% 5	% 100	% 0
Ortozik/hank(a)utsik	vs	Oinutsik	% 83	% 17	% 77	% 23
Uger egin	vs	Igeri egin	% 62	% 38	% 92	% 8
Holan	vs	Horrela	% 90	% 10	% 92	% 8
Jagon	vs	Zaindu	% 2	% 98	% 0	% 100
Ondino/ondi(ño)karren	vs	Oraindik	% 85	% 15	% 100	% 0
Olgau	vs	Jolastu	% 0	% 100	% 0	% 100
Sakatu	vs	Bultzatu	% 88	% 12	% 100	% 0
Berba egin	vs	Hitz egin	% 80	% 20	% 85	% 15
Zutunik	vs	Zutik	% 84	% 16	% 100	% 0
Txarri	vs	Txerri	% 32	% 68	% 42	% 58
Ago	vs	Aho	% 52	% 48	% 77	% 23
Lora	vs	Lore	% 44	% 56	% 77	% 23
Garri	vs	Gerri	% 6	% 94	% 23	% 77
Eperdi	vs	Ipurdi	% 17	% 83	% 15	% 85

Atzazkolak/atzazkalak	vs	Atzazal	% 93	% 7	% 85	% 15
Motz	vs	Itsusi	% 84	% 16	% 85	% 15
<b>Batez besteko ehunekoa</b>			% 69	% 31	% 76	% 24
<b>&gt; % 85</b>			18/50		30/50	

3. taula. Euskararen erabilera bizitokian oinarrituta.

3. taularen azterketa eginda eta ehunekoen batez bestekoei dagokienez, ikusi egiten da nola Gernikatik kanpo bizi diren ikasleak gehiago erabiltzen duten euskalkia. Hala ere, Gernikan bizi direnen eta kanpo bizi direnen arteko aldea ez da hain zabala, egia esan esperotakoa baino asko ere txikiagoa. Baliteke, batua gehien erabili duen ikasleak influentzia izatea honetan, izan ere, hain txikia izan denez Gernikatik at bizi diren ikasleen populazioa, ikasle horren erantzunak eragin handikoak izan dira. Erantzun nuluetan zentratuz, gernikarrek itemen % 2 utzi dute erantzun gabe, besteek baino puntu bat gehiago.

Garrantzizko datu bat aditzen erabilera da. Gernika inguruko herrietan bizi direnak euskalkiko aditzak edo aldaerak erabiltzen dituzte nagusiki, % 85eko ehunekoarekin gutxienez. Hori taulako aditz guztiekin gertatu da, “olgau” eta “jagon” aditzekin izan ezik, ez direla apenas erabiltzen. “Olgau” ez du 101 elkarrizketatuetatik inork esan. “Jagon” soilik bik erran dute. Beraz, hauek erabili ezean, urte batzuk barru desagertzera zuzenduta egongo dira Gernika eta bere inguruetan.

Atzizkiekin eta aldaketa lexikalizatuekin aurreko aldagaiarekin pasatu den kontu bera azpimarratu behar da. Alde nabaria dago kasu honetan ere, Gernikan bizi direnak askoz ere gutxiago erabiltzen baitute euskalkia besteek baino.

#### 4. Ondorioak

Jakina denez, ikerlanaren xede nagusia Gernika-Lumoko ikasleek ahozkotasunean euskalkiak edo estandarra erabiltzen duten ezagutzea izan da. Horretarako, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak elkarrizketatu dira. Guztira 101 ikasle. Helburu inportanteena jada aipaturik, gogoan izan behar da honen menpeko aldagai batzuk ere zehaztu direla (ikasleen ama-hizkuntza, eskola mota eta bizitokia). Hauei esker posible izan da informazio gehiago eskuratzea Gernika-Lumoko hezkuntza errealtateari buruz.

Berez, ikasleek Gernika-Lumo edo inguruko herrietako hizkera erabiltzen dute, baina kasu batzuetan beste euskalki edo aldaera batzuk ere erabili dituzte. Horren adibide dira Tolosaldeko eta Arratiako hitzak erabili izana.

Hasteko, sailkapena lehenengo aldagaiaren arabera eginda, ikusi da ama-hizkuntza soilik euskara duten ikasleek (% 75) gainerakoek (% 62) baino gehiago erabiltzen dituztela euskalkiak. Beraz, argi geratu da aldagai honi dagokion hipotesia bete egin dela: ama-hizkuntza euskara duten ikasleek bertako euskalkiko lexikoa erabiltzera joko dute. Besteek, ordea, euskara batua erabiliko dute maizago. Hala ere, onartu behar da espero ez ziren zenbait datu esanguratsu ikusi ahal izan direla.

Eskoletan fokatuz, frogatu egin da itunpeko eskolako ikasleek (% 75) publikoek (% 65) baino gehiago erabiltzen dituztela euskalkiak. Honek salto izugarri handia dagoela erakutsi du, izan ere, tarte handia da % 10ekoa kontuan izanik herri eta inguru berdinean bizi direla ikasle guztiak. Are gehiago, gogoan izanik soilik parte hartu dutela lan honetan euskara egoki dakiten ikasleek.

Aurreko guztia bilduz, aldagai honi dagokion hipotesia baieztatu dela esan daiteke, izan ere, itunpeko eskolako ikasleek publikoek baino gehiago erabiltzen dute bertako euskalkia, nahiz eta aspektu batzuetan (asteko egunetan, adibidez) EPkoek euskalkiari erreparatzen dioten, ez itunpekoek bezala. Bestalde, Soziolinguista Klusterrak (2017) eginiko ikerketa aurtengo datuekin alderatuz, egiaztatu da euskara gehiago erabiltzen den eremuetan, euskalkiek presentzia handiagoa dutela (kasu honetan, itunpeko eskolan).

Ikasleen bizitokiaren arabera aldagaiarekin bukatzeko, ikusi da Gernikatik kanpo bizi direnak gehiago erabiltzen dituztela euskalkiak (% 76). Gernikarren kasuan, erantzunen % 69 izan dira euskalkiren baten. Hala ere, espero ez ziren zenbait erantzun behatu izan dira, honetan ere asteko egunen erabilera. Gernikatik kanpo bizi direnak gernikarrek baino askoz ere gehiago erabiltzen dituzte euskara batuzko formak. Horren arrazoia izan liteke Gernikatik at bizi diren gehienak itunpeko eskolan ikastea (8/13tik), eta asteko egunak zentro horretan euskara batuan irakastea. Beraz, zentroaren arabera aldagaiak bizitokiarena baino pisu handiagoa duela esan daiteke, guztiz baldintzatu baititu lortutako erantzunak.

Hipotesiarekin amaitzeko, hau da aldagai honi egokitutakoa: Gernika-Lumotik at bizi direnak euskalkia erabiltzera joko dute. Gernikarrak, aldiz, ez hainbeste. Izan



ere, Gernika-Lumo inguruko herrietan ez dira atzerritarrak apenas bizi eta, gainera, euskara da gehiengoaren ama-hizkuntza (Eustat, 2016). Lehenengo esaldia argi dago bete egiten dela, batez bestekoek hori erakusten baitute. Hipotesiaren bigarren atala, oster, ez da 2. taulan islatzen, baina, gure datu basean ikusita, Gernikatik kanpo bizi diren gehiengoaren ama-hizkuntza euskara dela egiaztatu da, 13 ikasletik, 12rena.

Arestian azaldutako datuak bilduz, argi dago Gernika-Lumoko 4. mailako ikasleek euskalkiak erabiltzeari ekiten diotela gehienbat, gutxi gorabehera % 70 batean, betiere ahoz aritzerakoan. Azterlanean parte hartu duten bi zentroen kasuan, ez diote inolako plan formali jarraitzen bertako euskalkiaren erabilera bultzatzeko. Hala ere, erantzunek garbi erakutsi dute euskalkia estandarraren gaintik agertzen dela. Hori dela eta, jakinik ikerketa Gernika-Lumon burutu dela, onartu eta orokortu genezake, ahozko esparruan, euskara batuaren presentzia ez dela eragin handikoa oraindik inguru euskalkidunetan.

Hala eta guztiz ere, Heziberri 2020k adierazten duena gogoan hartuta, ondo legoke eremu euskalkidunetako eskolek euren euskalkiak txertatzea zentroetako Hizkuntza eta Curriculum proiektuetan. Horrela, eskolako idatziek esentzia propioa lortzeaz gain, plan honek eskatzen duen eredu konstruktibistari jarraituko diote (Eusko Jaurlaritza, d.g.-b). Hau da, ikasleak haien jakintzetatik abiatuta (euskalkia), ezagupen gehiago lortzera pasatuko dira (euskara batua eta euskalki gehiago). Hau guztia 236/2015 dekretuak zehaztutako Hezkuntza curriculumean ere errepikatzen da, honek duen garrantzia agerian utziz.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Amorraniz, K. (2019). Euskaraldia. Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, 63, 18-20.
- Aurrekoetxea, G., Unamuno, L., eta Ensunza, A. (2020). Dialectos y estándar vasco. In E., Boix eta M. P., Perea (Ed.), *Llengua i dialectes: esperances per al català, el gallec i el basc* (151-167 orr.). Universitat de Barcelona Edicions.
- Azurmendi, M. J. (2003). Euskal curriculum: hizkuntza arloa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 49, 71-78.
- Basurto, F. (1989). La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la Escuela Pública Vasca. *Historia de la educación*, 8(26), 139-165.
- Bilbao, B. eta Pérez-Urraza, K. (2008). Euskal curriculum lehen eta orain. *Ikastaria*, 16, 83-108.
- de Larramendi, M. (1729). *El imposible vencido*. Antonio José Villagordo Alcaraz.
- Elordui, A. eta Maia, J. (2002). Eskola eta dialektoak: irakaskuntzan gertatzen diren arazoak eta irtenbideak. *Revista de Psicodidáctica*, 13, 105-116.
- Euskaltzaindia, (2004). Adierazpena. Euskalkien erabileraz. Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan. *Euskera*, 1(49), 426-429.
- Euskaltzaindia, (2016). *Hiztegi batua*.  
<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/hiztegibatua/hiztegibatua.pdf>
- Euskaltzaindia, (d.g.-a). *Baionako Biltzarraren erabakiak (1964)*.  
<https://www.euskaltzaindia.eus/azkue-biblioteka-eta-artxiboa/erakusketa-birtualak/baionako-biltzarraren-erabakiak-1964>
- Euskaltzaindia, (d.g.-b). *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*.  
[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=sarrera&view=frontpage](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=sarrera&view=frontpage)
- Euskaltzaindia, (d.g.-c). *Villasanteren aldeko txostena (1964)*.  
<https://www.euskaltzaindia.eus/es/346-erakusketa-birtualak/5680-villasanteren-aldeko-txostena-1964>

Eusko Jaurlaritza, (2015). Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum (236/2015eko Dekretuaren II. eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea).

Eusko Jaurlaritza, (d.g.-a). *Euskera unificado*. [https://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/es/contenidos/informacion/euskara\\_batua/es\\_7419/euskara\\_batua.html](https://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/es/contenidos/informacion/euskara_batua/es_7419/euskara_batua.html)

Eusko Jaurlaritza, (d.g.-b). *Heziberri 2020. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn\\_heziberri\\_marco/eu\\_def/adjuntos/Heziberri\\_marco\\_modelo\\_educativo\\_pedagogico\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_marco/eu_def/adjuntos/Heziberri_marco_modelo_educativo_pedagogico_e.pdf)

Eustat, (2017). *Euskal AEko biztanleen arteko ( $\geq 16$  urte) euskara erdara beste edo gehiago erabiltzea, erabilera-eremuaren arabera (%)*. 1991-2016. [https://eu.eustat.eus/elementos/ele0009500/ti\\_uso-del-euskera-tanto-o-mas-que-del-castellano-entre-la-poblacion-de-la-ca-de-euskadi--16-anos-por-el-ambito-de-uso--1991-2016/tbl0009570\\_e.html](https://eu.eustat.eus/elementos/ele0009500/ti_uso-del-euskera-tanto-o-mas-que-del-castellano-entre-la-poblacion-de-la-ca-de-euskadi--16-anos-por-el-ambito-de-uso--1991-2016/tbl0009570_e.html)

Eustat, (2018a). *Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleen ehunekoa, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera*. [https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX\\_010152\\_cepv3\\_ne06.px/](https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_010152_cepv3_ne06.px/)

Eustat, (2018b). *Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera*. 2016. [https://www.eustat.eus/elementos/ele0014700/poblacion-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-lengua-materna-y-lengua-hablada-en-casa/tbl0014754\\_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/ele0014700/poblacion-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-lengua-materna-y-lengua-hablada-en-casa/tbl0014754_c.html)

Eustat, (2021). *Euskal AEko biztanleria ehunekoa, lurralde-eremuaren eta jaiolekuaren arabera*. [https://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/DB/-/PX\\_010154\\_cepv1\\_ep08.px](https://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/DB/-/PX_010154_cepv1_ep08.px)

Eustat, (2021). *Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki*. Datu-aurrerapena. 2021/22. [https://eu.eustat.eus/elementos/ele0002400/ti\\_alumnado-matriculado-en-enseanzas-de-regimen-general-no-universitarias-en-la-ca-de-euskadi-por-territorio-historico-y-nivel-de-enseanza-segun-titularidad-del-centro-y-modelo-linguistico-avance-de-datos-202122/tbl0002427\\_e.html](https://eu.eustat.eus/elementos/ele0002400/ti_alumnado-matriculado-en-enseanzas-de-regimen-general-no-universitarias-en-la-ca-de-euskadi-por-territorio-historico-y-nivel-de-enseanza-segun-titularidad-del-centro-y-modelo-linguistico-avance-de-datos-202122/tbl0002427_e.html)

Garabide elkarte, (2010). *La estandarización de la lengua: La recuperación del euskara II*.

<https://libros.metabiblioteca.org/bitstream/001/526/1/La%20estandarizaci%c3%b3n%20de%20la%20lengua.pdf>

Kardaberaz, A. (1761). *Euskeraren berri onak*. Antonio Castilla.

Lakarra, J. A. (2006). Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica. In J., Kortazar, C., Isasi eta S., Gómez-Seibane (Ed.), *Oihenart, Cuadernos de Lengua y Literatura, I Jornadas de Lingüística Vasco-Románica* (229-322 orr.). Eusko Ikaskuntza.

Maia, J. (2008). Euskara Batua eta euskalkiaren arteko harremanen bilakaera irakaskuntzaren ikuspuntutik. *Euskalgintza XXI. mendeari buruz XV. biltzarra*, 119-128.

Maia, J., eta Larrea, K. (2008). Euskara batua eta euskalkiak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Mitxelena, L. (1968). Ortografia. *Euskera*, 13, 203-219.

Núñez-Astrain, L. (2003). *El euskera arcaico: Extensión y parentescos*. Txalaparta.

Osa, E. (2019). Euskara, habil mundu guztira. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, 63, 4-5.

Pagola, I. (2005). *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. <http://euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/59821.pdf>

Pérez-Urrea, K. (2019). Ikastola euskal irakaskuntzaren ardatzean. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, 62, 42-56.

Pinzón, S. L. (2005). Lenguaje, lengua, habla, idioma y dialecto. *La Tadeo*, 7, 9-21.

Salaburu, P. (d.g.) *Hizkuntza landua, hizkuntza idatzia, batasuna*. <http://www.ehu.es/seg/gizt/6/1>

Soziolinguista klusterra, (2017). *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016*. <https://www.gernika-lumo-euskaraz.eus/fitxategiak/fckeditor/file/Kale-neurketa2016-GernikaLumoTXOSTENA%20Ekaina.pdf>

Toledo, A. M. (2006). Euskararen iraupena, atzo eta gaur. *Euskera*, 2(51), 1019-1026.

Vázquez-Villa, I. (2017). *Zer hizkuntza eredu gure eskoletan eta zergatik?* Euskal Herriko Unibertsitatea. [Gradu Amaierako Lana]. Hemen eskuragarri: <https://addi.ehu.es/handle/10810/25925>


Zabaleta, J. (2019). La estandarización del euskera: breve historia y resultados. *Limite*, 13(2), 123-142.

Zuazo, K. (1988). Euskara Batua: Aitzindariak eta beste. *Euskera*, 34(2), 265-272.

Zuazo, K. (2008). Euskara normaltzeko bideak. *Euskalgintza XXI. mendeari buruz XV. biltzarra*, 3-13.

**6. Eranskinak**

**6.1. Baimen eskaera**



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

### BAIMEN ESKAERA

..... jaun/andreak, .....

NAN zenbakia duenak eta .....(r)en guraso edo tutore legala denak, BAIMENA ematen dio ikasleari UPV/EHUko Gradu Amaierako Lan baterako egingo den galdetegian parte hartzeko. Bestalde, burututako galdetegia guztiz konfidentziala izango da, bakarrik hezkuntza zereginetarako erabiliko dena eta, beraz, ez da inondik inora ere irabazi ekonomikorik lortuko honekin.

.....(e)n, 2022ko .....aren .....(e)(a)n.

Sinadura:

---

### SOLICITUD DE PERMISO

D./Dña. ...., con DNI .....

y siendo padre/madre o tutor/a legal de .....

AUTORIZA al alumno/a a participar en un cuestionario para un Trabajo de Fin de Gradode la UPV/EHU. Por otra parte, el cuestionario realizado será totalmente confidencial y se destinará exclusivamente a tareas educativas, por lo que no se obtendrá ningún beneficio económico.

En ....., a ..... de ..... de 2022.

Firma:

## 6.2. Galdetegia

- Tenemos clases de gimnasia los **martes (1)** y los **jueves (2)**.
- Mi **abuelo (3)** fue **cura (4)** de joven.
- Hay que subir una **cuesta (5)**.
- Mi **tía (6)** le ha comprado un regalo a la **hermana (7)** de Miren.
- Me he mordido la **lengua (8)** con los **dientes (9)**.
- Me duele la **espalda (10)**.
- He hecho un **nudo (11)** con los **cordones (12)** del zapato.
- Tienes el **desayuno (13)** preparado.
- Me gusta comer **fresas (14)** con **azúcar (15)**.
- A la **noche (16)** vi una **araña (17)** enorme.
- Tengo la **frente (18)** sudada.
- Tengo **dolor de tripa (19)**.
- Me duele el **cuello (20)**.
- Se me ha roto un **dedo (21)** de la mano **derecha (22)**.
- **Mueve (23)** la silla.
- Ven **connmigo (24)**.
- **Corta (25)** un trozo de pan.
- Lo has hecho **bien (26)**.
- Si tienes sed bebe **agua (27)**.
- Cierra la **puerta (28)**.
- **Enciende (29)** la luz y después **apágala (30)**.
- Me han **robado (31)** la cartera.
- Se ha **caído (32)** al suelo.
- **Lleva (33)** el coche al taller.
- Se **ha resbalado (34)**.
- Está **descalzo (35)**.
- Se **nada (36)** así (37).
- Tienes que **cuidar (38)** a tu hermana.
- ¿Estás **todavía (39)** **jugando (40)**?
- Si me **empujas (41)** es falta.
- Como castigo por **hablar (42)** he estado **de pie (43)** durante toda la clase.
- Ese **cerdo (44)** tiene la **boca (45)** enorme.
- He comprado unas **flores (46)**.
- Me han dado un golpe en la **cintura (47)**.
- Me duele el **culo (48)**.
- Me he pintado las **uñas (49)**.
- Esa camiseta es muy **fea (50)**.

**6.3. Erantzun posibleen zerrenda**

	<b>EUSKALKIA</b>	-	<b>BATUA</b>
1	Martitzen	-	Astearte
2	Eguen	-	Ostegun
3	Aitita	-	Aitona
4	Abade	-	Apaiz
5	Aldats	-	Aldapa
6	Izeko	-	Izeba
7	Aizta	-	Ahizpa
8	Min	-	Mihi/mingain
9	Hagin	-	Hortz
10	Lepo	-	Bizkar
11	Marapilo	-	Korapilo
12	Kordel	-	Lokarri/soka/korda
13	Armosu	-	Gosari
14	Malluki	-	Marrubi
15	Asukera	-	Azukre
16	Gaba	-	Gaua
17	Aramu	-	Armiarma
18	Bekoki	-	Kopeta
19	Tripalak	-	Tripako mina
20	Sama	-	Lepo
21	Atzamar	-	Hatz
22	Eskuma/eskoia	-	Eskuina
23	-du [mugidu]	-	-tu [mugitu]
24	-(e)gaz [nigaz]	-	-(r)ekin [nirekin]
25	-gi [ebagi]	-	-ki [ebaki]
26	-do [ondo]	-	-gi [ongi]



27	-e [ure]	-	-a [ura]
28	-ie [atie]	-	-ea [atea]
29	Ixetu/biztu	-	Piztu
30	Amatatu	-	Itzali
31	Ostu	-	Lapurtu
32	Jausi	-	Erori
33	Eroan	-	Eraman
34	Laban egin/txirrist egin	-	Irrist egin
35	Ortozik/hank(a)utsik	-	Oinutsik
36	Uger egin	-	Igeri egin
37	Holan	-	Horrela
38	Jagon	-	Zaindu
39	Ondino/ondi(ño)karren	-	Oraindik
40	Olgau	-	Jolastu
41	Sakatu	-	Bultzatu
42	Berba egin	-	Hitz egin
43	Zutunik	-	Zutik
44	Txarri	-	Txerri
45	Ago	-	Aho
46	Lora	-	Lore
47	Garri	-	Gerri
48	Eperdi	-	Ipurdi
49	Atzazkolak/atzazkalak	-	Atzazal
50	Motz	-	Itsusi